

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

57/2026 Mozioa, ekainaren 10ekoa, suhiltzaileen plantilla handitzeko EPEa egiteari dagokionez

Arabako Batzar Nagusiek, 2026ko ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

57/2026 Mozioa, ekainaren 10ekoa, suhiltzaileen plantilla handitzeko EPEa egiteari dagokionez.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bete ditzala Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren I. kapitulari dagokionez 2026ko aurrekontuan jasotako aurreikuspenak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sei sarjentu plaza berri sor ditzala Arabako Suhiltzaileen Erakunde Autonomoko lanpostuen zerrendan, eta, ondoren, dauden hamabi sarjentu-plazak bete ditzala lan-eskaintza publiko baten bidez.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote baliabide propioekin bere gain har dezala aurreikusitako suhiltzaileen plazen etorkizuneko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren oposizio-fasea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 10a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA